

Alejandra Rayas

“Mobilizazio baketsuaren sendotasuna da Kataluniaren itxaropena”

Barcelonetako Mediterrània eskolako erasoetan Espainiako Poliziak zauritu izanagatik gogoratzen du batek baino gehiagok Alejandra Rayas (Queretaro, Mexiko, 1970). Urriaren 1eko lehen urteurrena betetzear dela, eta, kolpatu zuen guardia zibilaren aurkako epaiketarekin zer gertatuko den jakiteko “adi” dagoen bitartean elkarriketatu dugu.



Saioa Baleztena

@SaioB

ARGAZKIA: JORDI BORRÀS

Noiz eta nola iritsi zinen Bartzelonara?

Ikasketek ekarri ninduten duela 25 urte Bartzelonara. Hasieratik, harrituta gelditu nintzen gizarteratzeko izan nituen erraztasun eta azkartasunagatik. Aldiz, ezustekoa izan zen, beste hainbat zentzutan, Mexikon Espainiaz ezagutzen zenak ez zuelako zerikusirik errealitatearekin. Gogoratzen dut zail zitzaidala ulertzea zergatik urratu nahi zituen Espainiako Estatuak bertako altxor izan beharko liratekeen kulturak. Gerora ulertu nuen, behar bezala itxi gabeko gerra zibilaren zauriek irekita jarraitzen zutela, garbiketarik egin gabe...

Zergatik bozkatu zenuen urriaren 1eko erreferendumean?

Nire *leitmotiv*-a betidanik izan delako ahulen alde borrokatzea, ibilbide luzea egin dut pobrezia eta desberdintasunen kontra eta, aldeak alde, katalanak zapalduak izan dira. Ez pentsa, ni ez naiz nazionalista, herrialde batzuetan bizi izan naiz eta ez dut mugaldetan sinesten. Baina Espainiako Estatuak Katalunian hizkuntza, hezkuntza, eta erabakitze eskubidea zapaltzen dituela ikusi nuenean gogoeta egin nuen. Nire buruari eskatu nion mugen kontrakoa izan arren, Katalunian eragiten ari zi-

ren minaren aurrean nola jokatu erabakitze. Eta argi eta garbi ikusi nuen, ahulena gatazka honetan Katalunia zela, erraldoi boteretsu bat zuelako aurrean, euren askatasunerako urrats oro gelditzen. Jende askori gertatu zaio, hau ez da independentziari buruzko auzia, giza eskubideen bermeaz ari gara.

Zer gertatu zen urriaren 1ean Bartzelona-ko Mediterrània eskolan?

Nire bikotekidearekin batera, goizean goiz esnatu eta auzoko eskolara joan ginen bozkatu asmoz. Ilaran lasai-lasai gosalitzen bukatu genuenean, bat-batean, Espainiako Polizia etortzen hasi zen. Urduritasuna agerikoa zen inguruan. Jendea biltzen hasi zen, antolakuntzatik iragarri bezala, poliziak sartzen ez uzteko, eta orduan nire mutil-laguna galdu nuen. Polizia kolpeka hasi eta bere bila hasi nintzenean, abisurik gabe, bizkarretik jaso nuen lehen borra kolpea aurpegian. Agenteari begiratu eta beste kolpe batekin zigortu ninduen. Nahasita gelditu nintzen minagatik. Kezkatuta nintzen nire mutil-laguna lurtean zegoela ikusi nuelako. Berarengana hurbiltzen saiatu nintzen eta hirugarren kolpe bat jo zidaten orduan. Hor bai, tokiz kanpo gelditu nintzen. Larrialdietara eraman ninduten.



Fisikoki zein izan ziren erasoaren ondorioak?

Masailezurra eta sudurra hautsi zizkidaten, baina okerreana, begian egin zidaten hematoma izan zen. Sekulako mina ematen zidan eta bi hilabete behar izan nituen aurpegiko zauriak sendatzeko. Zaila izan zen. Nahi gabe nire kasua publiko egin zen eta ez nuen etxetik aterata nahi. Gainera, indarkeriaren kontrako borrokaren aldarri izan naiz nire ibilbide profesionalean, eta zaila zitzaidan, lan egiten dudan umeen aurrean aurpegia ubelez josita agertzea.

Egunean bertan jarri zenuen salaketa. Zertan da?

Abantaila da gertakarien irudi asko lortu dugula, eta nire bizilagun batek grabatu eta aurkeztu zuen bideo bati esker informazio baliagarri asko jaso dugu. Miresgarria da jendeak frogak biltzeko egin duen lana. Horri esker jakin izan



dugu hiru kolpeak polizia berak eman zizkidala eta dagoeneko identifikatu dutela. Ulertu nahi dut deklaratzera deitu dutela, eta aurrerantzean, ikusiko dugu zer gertatuko den.

Adorez ekin eta larrialdietatik atera bezain pronto joan zinen bozkatzera.

Noski. Duintasunagatik. Adierazpen askatasunean eta erabakitze eskubidean sinesten dut eta, beraz, jipoiek ezin zuten nire erabakitze eskubidea urratu. Hasitakoa bukatu behar genuen, txalo artean hartu ninduten eta hunkigarria izan zen.

Hain zuzen ere, urriaren 1ean zeurea bezalako erasoak ikusi ondoren, bozkatzeko asmorik ez zuen jende asko azkeneko joan zen botoa ematera.

Bai eta oso pozgarria izan zen erantzun hori ikustea. Beldurra zabaldu nahi zuten eta kontrakoa lortu zuten. Penaga-

» **“Adierazpen askatasunean eta erabakitze eskubidean sinesten dut eta, beraz, jipoiek ezin zuten nire erabakitze eskubidea urratu”**

ria da eragindako mina, baina, jende askok begiak ireki zituen Poliziaren eraso bortitzak ikustean.

Urtebete pasa da eta, errepresioaren gainetik, milioi bat lagun atera zen Diadan kalera.

Kataluniako mobilizazioak ez du aurrekaririk. Beste behin, Espainiak beldurraren kultura erabili du gizartea apaltzeko, baina indartu besterik ez dute

egin. Are gehiago, mobilizazio baketsuaren sendotasuna da Kataluniaren etorkizunaren itxaropena.

Herriarrek argi duten arren, independentismoa bide-orririk gabe dago orain. Zer deritzozu alderdi politikoen jarreraz?

Tira, ordezkari nagusiak espetxeratu eta erbesteratu daude, beraz, pazientzia falta eta presa ez dira bidelagun onak izango. Funtsezkoa da gogoeta sakona egin eta ondoren ibiltzen hastea. Bide-orririk funtsezkoak dira, baina gogoetarik gabe, noraezean ibiliko gara.

Inoiz bozkatzeko duzu berme guztiekin antolatutako erreferendum batean?

Noski, zalantzarik gabe. Nire ametsa da demokrazia orok bermatu beharko lituzkeen eskubideak errespetatu eta justizia egiten duen mundu batean bizitzea. Eta ziur naiz Kataluniak lortuko duela.